

LAMIA ETA ARTZAINA

Ereñoko artzain gazte bat lamia eder batekin maitemindu zen.

Lamia hau, urrez jantzita, kobazulo batetik irten ei zitzaion. Mutil gaztea hantxe bertan lamiarekin maitemindu eta ezkontzeko asmoz, bere amari itaundu zion ia zer zeritzon. Amak, neskatila ederraren oinak ondo begiratzeko esan zion. Artzaina mendira joan zen eta han bere artaldeko ahari baten gainean, orrazten ikusi zuen, baita konturatu ere, neskaren oinak ahatearenak bezalakoak zirela.

Mutil gizajoak ez zuen ezkondu gura izan, baina gaixotu egin zen eta maitasunez hil. Bere hiletan inork ezagutzen ez zuen eta negarrez eten gabe zegoen andre eder bat ikusi zen. Jendea, Ereñoko elizara heldu zen, baina, andre ez zen barrura sartu, ezta inork berriz ikusi ere. Mutilaren amak bakarrik aditu zuen guztia, eta gero herrian komentatu zuen.

Harrezkero lamiak herritik aldendu egin ziren.



Lamia iturri Ereñoko Gaztainbeko eta Arrupe baserrien artean dago. Gaur egun, iturria nekez ikus daiteke.

Endika Mogrobejo

Ereñoko Elizatearen Kondaira

Wilsen Editorial

Ereñoko Udala

Bilbo, 1987